Guía profesorado-5.qxd 12/06/2009 9:57 Página 1



pon bereko beste aurpegia, porrota: diru hondamendia mutilentzat eta bikotearen hondamena neskentzat (tratu txarrak barne).

Oso bistakoa da ikasketa hauen eragina gure ikasleek, neskek nahiz mutilek, oka berdearen ibilbidearen eta oka urdin eta oka arrosaren ibilbidearen artean egin behar duten aukeraketan. **Berdintasunaren oka ez da posible komunikabideek ez badituzte berdintasunez islatzen emakumeen eta gizonen ekintzak, interesak, kezkak eta balioak**.

**Soilik neskek bere burua** mutilak dauden atal, albiste eta titular "garrantzitsuetan" **ikusten badute**, imajinatu eta aurreikusi dezakete, etorkizunean, jarduera eta esparru horietatik pasako den bizibidea. Soilik komunikabideentzat eta gizartearentzat mutilak bezain garrantzitsuak direla ikusten badute, euren burua protagonistatzat hartu ahal izango dute eta ez bigarren mailako pertsona bezala. Soilik orduan tratatu ahalko dituzte mutilak berdintasunez, eta berdintasunez eta tratu onez osatutako harremanak izan beraiekin.

**Soilik mutilek neskak** beraiek dauden atal, albiste eta titular "garrantzitsuetan" **ikusten badituzte**, imajinatu eta aurreikusi ditzakete neskak etorkizunean jarduera eta esparru horietan. Soilik komunikabideentzat eta gizartearentzat neskak beraiek bezain garrantzitsuak direla ikusten badute, neskak protagonistatzat hartu ahal izango dituzte eta ez bigarren mailako pertsonak bezala. Soilik orduan ahalko dute mutilek neskak berdintasunez tratatu eta berdintasunez eta tratu onez osatutako harremanak izan beraiekin. Horrela ez bada, neskak hor ikusten ez badituzte, jarraituko dute neskak baino gehiago direla pentsatuz, neskak gutxietsiz eta nagusikeriaz eta mespretxuz tratatzen.

Gure ikasleen heziketan komunikabideen garrantzia begibistakoa eta funtsezkoa da. Eta, adinean aurrera egiten duten neurrian, gero eta era errezagoan eta autonomoan erabiliko dituztela kontuan izanda, gure ikasleei **hedabideak berdintasunaren ikuspuntutik ikusten eta irakurtzen erakustea** bizitza justuago bat eta tratu onez bizitzeko aukera eskeintzea da.

Eduki eta kontzeptu hauek guztiak lantzeko, unitate honek **"Komunikabideen Partxisa"** deitutako materiala eskeintzen du. Funtsean, komunikabideetan dauden atal gehienak biltzen dituzten lau esparru zabal duen partxisa da, arlo guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua jasotzen duena. Emakumeen presentzia beraien ekintza eta jardueraren araberakoa da, eta ez gizon batekin eduki dezaken harreman edo senidetasunagatik.

Era berean, 80 pertsonai hauetaz gain, jolasak gure ikasleek egia ala gezurra diren asmatu beharko dituzten ia **200 esaldi** ditu. Esaldi hauek emakumeak ikustezinak bilakatzen dituzten hainbat **mito, aurreiritzi eta ideia okerri buruz** dira.

gracias a la belleza (sea como sea). Y, en su caso, la otra cara de la moneda, el fracaso: para los chicos la ruina económica y para las chicas el fracaso sentimental de pareja (incluido el maltrato).

Como es evidente, estos aprendizajes inciden mucho en la elección que nuestras alumnas y alumnos deben hacer entre la oca azul y rosa por un lado y la oca verde de la igualdad por otro. **La oca de la igualdad sólo es posible si los medios de comunicación reflejan de forma igualitaria la actividad, intereses, preocupaciones y valores de las mujeres y de los hombres**.

**Sólo si las chicas se ven** en las mismas secciones, noticias y titulares "importantes" que los chicos, podrán imaginarse en el futuro, en su recorrido vital, ocupando dichas actividades, secciones, noticias y titulares. Sólo si las chicas ven que son tan importantes como los chicos para los medios de comunicación, para la sociedad, podrán verse como protagonistas y no como secundarias, podrán tratar a los chicos como iguales y establecer con ellos relaciones de igualdad y buenos tratos.

**Sólo si los chicos ven a las chicas** en las mismas secciones, noticias y titulares "importantes" que ellos, podrán imaginarse en el futuro a las chicas ocupando dichas actividades, secciones, noticias y titulares. Sólo si los chicos ven que las chicas son tan importantes como ellos para los medios de comunicación, para la sociedad, podrán ver a las chicas como protagonistas y no como secundarias, podrán reconocer y tratar a las chicas como iguales y establecer con ellas relaciones de igualdad y buenos tratos. En caso contrario, seguirán considerándose más y mejores que ellas y tratando a las chicas desde la superioridad y la minusvaloración, incluso el desprecio.

La importancia de los medios de comunicación en la educación de nuestras alumnas y alumnos es pues fundamental. Teniendo en cuenta además que, a medida que crecen, acceden a ellos con mayor autonomía y facilidad, **enseñarles a verlos y leerlos desde la igualdad** es ofrecerles la oportunidad de educarse para vivir más justamente y con buenos tratos.

Esta unidad plantea para trabajar estos conceptos y contenidos un material que hemos llamado **"El parchís de los medios de comunicación"**. Se trata básicamente de un parchís que recoge en cuatro grandes ámbitos la mayoría de las secciones habituales de los medios de comunicación y que plantea, en todos ellos, la presencia de mujeres y hombres por igual. La presencia de las mujeres está, por supuesto, determinada por sus actividades y no por su relación sentimental o familiar con algún hombre.

Asimismo, además de estos 80 personajes, el juego incluye casi **200 frases en torno a los mitos, prejuicios y falsas ideas** que conducen a la invisibilización de las mujeres en los medios y que nuestro alumnado debe estimar si son verdaderas o falsas.

ISBN 10:84-89630-10-0
ISBN 13:978-84-89630-10-9

tratu txarrak — NAHIKO! 3-4 — berdintasuna
maltrato — igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna — Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO



# KOMUNIKABIDEAK

# MEDIOS DE COMUNICACIÓN

UNIDAD DIDÁCTICA 5 UNITATE DIDAKTIKOA

## 1 HELBURUAK ETA EDUKIAK

Bostgarren unitate didaktikoak **berdintasunaren ikuspuntutik komunikabideen azterketa** du ikasgai. Aurreko unitateetan esan dugun bezala, Nahiko programaren helburua neska-mutilen arteko gaur egungo eta, bereziki, euren etorkizuneko bikote harremanetan tratu txarrak prebenitzea da. Tratu onez osaturiko etorkizuneko harreman horiek, soilik berditasunak eta emakume eta gizonen giza eskubideen errespetuak bermatu ditzake. Horretarako, Nahiko egitasmoak gure ikasle neskak eta gure ikasle mutilak Berdintasunaren Oka berdea deritzogun hezibidean hezi nahi ditu. Hau da, hezi daitezela gure eskoletan pertsona autonomiadunak izateko eta euren bizitza ibilbideak bizitzaren arlo guztietan garatu ditzaten: norberaren eta familiaren zainketa arloan, enplegua eta autonomia ekonomikoan, etabar.

Programaren hiztegia erabiliz esateko, **bizitzeko bi eredu ezberdinen artean aukeratu behar dutela** erakutsi nahian gabiltza: (mutilentzat) oka urdinak eta (neskentzat) oka arrosak irudikatzen duten bizitza ibilbidea alde batetik, eta (nahiz neska nahiz mutilentzat) berdintasunaren oka berdeak irudikatzen duena. Bizibide batetik ala bestetik abiatzeak, bai norberarentzat eta bai besteekin ditugun harremanetan zein ondorio ezberdinak dituen ulertarazten saiatzen ari gara.

**Oka urdina eta oka arrosaren bizibideak** (ohizko genero estereotipoak) pertsona erdiak izatera eramaten gaitu, soilik bizitzaren arlo batzuetan garatuak eta ez beste arlo batzuetan. Bestetik, bi oka horien ibilbideak oso estatus eta bitarteko ezberdinak ematen dizkie emakume eta gizonei eta, ondorioz, ezberdintasun horren gainean eraikitzen dituzte euren arteko harremanak, hauek nagusikeriz, menpekotasunez eta tratu txarrez betetzeko arriskua oso handia dutelarik.

## 1 OBJETIVOS Y CONTENIDOS

La quinta unidad didáctica se centra en el estudio y análisis de **los medios de comunicación desde el punto de vista de la igualdad**. Como hemos dicho en unidades anteriores, el objetivo del programa Nahiko es prevenir el maltrato en las relaciones actuales y, sobre todo, en las relaciones de pareja que nuestras alumnas y alumnos puedan tener en el futuro. Este futuro de buenos tratos entre chicas y chicos sólo es posible desde la igualdad y el respeto mutuo a los derechos humanos de mujeres y hombres. Para ello, el programa Nahiko plantea que nuestras alumnas y alumnos se eduquen en lo que hemos llamado la oca verde, la Oca de la Igualdad. Es decir, que se eduquen en nuestros centros para realizar recorridos vitales de autonomía personal y desarrollo integral personal en todos los ámbitos de la vida: el del cuidado personal y familiar, el del empleo y la autonomía económica, etc.

Para decirlo con el lenguaje del programa, les estamos intentando enseñar que **deben elegir entre dos estilos de vida** muy diferentes: el recorrido vital que representan la oca azul (para los chicos) y la oca rosa (para las chicas) por un lado, y el recorrido vital que representa la oca verde por otro (tanto para chicas como para chicos). Estamos intentando que entiendan que las consecuencias de ir por un camino o por el otro son muy diferentes tanto en lo personal como en lo relacional.




**El itinerario de la oca azul y la oca rosa** (los estereotipos tradicionales de género) nos lleva a ser medias personas que se desarrollan sólo en algunos ámbitos de la vida y no en otros, nos da un estatus y unos

Guía profesorado-5.qxd 12/06/2009 9:57 Página 2



**Oka berdearen ibilbideak** berriz (berdintasunak) bizitzaren arlo guztietan garatutako pertsona osoak izatera eramaten gaitu. Emakume eta gizonei pareko estatusa eta bitartekoak ematen dizkie eta, ondorioz, hauek parekotasun horren gainean eraikitzen dituzte euren harremanak, hauek errespetuz, elkarlanez eta tratu onez betetzeko aukera handia dutelarik.

Horrela esanda, aukeraketak oso bistakoa dirudi eta gure ikasleek, nahiz neskek nahiz mutilek, ez lukete zalantza asko izan behar zer komeni zaien gehiago erraz jakiteko. **Baina aukeraketa ez da hain argia eta erraza**. Oka urdinaren eta oka arrosaren sistema hain da unibertsala eta hain garatuta dago, non gizarte osoa busti eta inpregnatzen duen eta pertsona guztiok, emakume zein gizon, inkontzienteki barneratu eta gure-gurea egina dugun. Gu jaio garen eta hazi garen mundua da, hezi eta bizi garen mundua, eta inertziaz errepikatzen duguna.

Berdintasunaren oka berdea berriz, ez da oraindik garatutako eta onartutako gizarte sistema unibertsala. Oraindik proiektu bat da, **aldatzeko eta hobetzeko proposamen bat**, kontzienteki zabaldu, gizarteratu eta barneratu egin behar duguna. Hau da, programaren hiztegia erabiliz, puntu berdeak sortuz, puntu grisak berdeak bilakatuz, mundua aldatzen joan.

Hau ari gara egiten gure eskoletan neska-mutilak berdintasunerako hezitzen saiatzen garenean. Dena den, jakin badakigu eskola ez dela neska-mutileei garapen eta harreman ereduak eta bizitzarako ibilbideak eskeintzen saiatzen den hezitzaile bakarra. **Nonahiko komunikabideek eginbehar hezigarri garrantzitsua betetzen dute gure gizartean**. Dudarik gabe, onerako eta txarrerako, benetako gizarte eskola indartsu eta eraginkorra dira. Gure ikasle neskek eta gure ikasle mutilek hedabideetan ikusi eta ikasten dute bizitzarako, etxean eta eskolan egiten duten bezala.

Hedabideek, orokorrean, gizartean nagusi diren gaiak, balioak eta ereduak islatu eta erakusten dituzte eta, batzuetan, hauen alternatibak jaso edo proposatzen dituzte. Gure neska-mutilek bertan ikusi, imitatu eta ikasten dituzte euren interesak, gustuak, lehentasunak, helburuak, estiloak, harremanak, kontaketak, balioak... **Neskek eta mutilek gizartean presentziaren, harremanen eta arrakastaren ereduak komunikabideetan ikusi, imitatu eta ikasten dituzte**. Hau da, hedabideek gizartean eta bizitzan norbait izateko bidea erakusten dute, izen ezagun bat izateko bidea, gizartean norbait baliotsua, arrakastatsua, onartua eta miretsia izateko ibilbidea.

Gizarte arrakastarako eredu hauek ezberdinak dira neskentzat eta mutilentzat. **Komunikabideek gure gizartea islatzen dutela esaten da, hau da: gizakien jarduna, gizakien kezkak eta gizakientzat garrantzitsuak (kontagarriak) diren gauzak**. Baina, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspuntutik, hedabideek, orokorrean, gizonen ekintzak, kezkak, gustuak, interesak, balorapenak, e.a. kontatu, islatzen eta goraipatzen dituzte.

Egunero erabiltzen ditugun prentsa, aldizkari, telebista, Internet, e.a. hartu eta **azaltzen diren emakumeak eta gizonak kontatzen baditugu**, hau ikusi eta baieztatuko dugu: ez dira emakume eta gizon kopuru bera azaltzen, emakumeak eta gizonak ez dira atal berdinetan azaltzen (izokin-koloreko orriak eta prentsa arrosa, politika eta gizartea, kultura eta ikuskizunak...), ez dira arrazoi berdinagatik azaltzen eta ez dituzte albiste eta lerroburu berdinak izaten (laneko arrakasta eta amodioen gorabeherak, era guztitako markak eta edertasuna...), etabar.

Orokorrean, **komunikabideek gizonen ekintzak, gizonen mundua eta gizonen gauzak jasotzen dituzte, eta ez emakumeen ekintzak, gauzak eta mundua**. Biztanleria erdia dute gogoan (erdi "garrantzitsua" noski) eta beste erdia eta bere lana eta eguneroko ekarpenak ahaztuz.

Nahiko programaren hiztegia erabiliz, hedabideek **oka urdina asko islatu eta jasotzen dutela (garrantzitsua, protagonista da)**. Oka arrosa berriz, gutxi (bigarren mailakoa da eta hor dagoela gogoratzeko adina soilik). Eta berdintasunaren oka berdea gutxiago (gehienentzat ez da existitzen).

Era honetan, **hedabide gehienek gehienetan biztanleriaren erdia, emakumeak, ikustezinak bilakatzen dituzte**. Ondorioz, gure ikasleek, emakumeek eta neskek, ez dute bere burua bizitzaren hainbat arlo eta jardueratan inoiz ikusten.

Komunikabideetan **gure ikasle mutilek** gizonak zein atal, albiste eta lerroburuetan agertzen diren ikusi eta ikasten dute. Eta beraiek, gizonak jaio direnez, naturalki, zein atal, albiste eta lerroburu "garrantzitsuetan" (politika, ekonomia, kultura, kirola...) duten beraiek etorkizunean egoteko "eskubidea". Mutilak izateagatik hedabideentzat eta, ondorioz, gizartearentzat garrantzitsuak direla ikasten dute. Are gehiago, mutilak izateagatik zein leku "zor zaien" ikasten dute.

Komunikabideetan, komunikabide berberetan, **gure ikasle neskek beste ikasgai bat ikasten dute, oso ezberdina.** Beste era bateko atal, albiste eta lerroburuetan agertzen direla ikusi eta ikasten dute, "hain garrantzitsuak ez direnak" hain zuzen ere (esamesak, bitxikeriak, azken orrialdea, biluzik...). Eta "garrantzitsu" batzuetan ere bai, baina erasotuak direnean edota gizon baten neskalagunak direnean. Emakumeak ez daudela atal, albiste eta lerroburu "garrantzitsuetan" ikasten dute eta, neskak direnez, etorkizunean esparru horiek ez dagozkiela ikasten dute. Neskak izateagatik hedabideentzat eta, ondorioz, gizartearentzat ez direla garrantzitsuak ikasten dute. Are gehiago, neskak izateagatik zein leku "ez zaien tokatzen" ikasten dute.

Hedabideen bidez egiten dituzten ikasketa ezberdin hauek **ekintza esparru eta gizarte arrakasta eredu oso ezberdinak** adierazten dituzte batzuentzat eta besteentzat. Mutilentzat, lan mundua eta enpleguan (edozein delarik) oinarritutako diru arrakasta. Neskentzat, edertasunean (edozein moduan lortuta) oinarritutako maitasun-bikote arrakasta. Eta, horrela gertatuko balitz, txan-

recursos muy diferentes a mujeres y hombres y, en consecuencia, mujeres y hombres se relacionan entre sí desde esa desigualdad, con riesgo evidente de establecer relaciones de dominio, dependencia y maltrato.

**El itinerario de la oca verde** (la igualdad) plantea personas enteras desarrolladas en todos los ámbitos de la vida, con estatus y recursos equivalentes para mujeres y hombres y que, en consecuencia, mujeres y hombres se relacionen entre sí desde la igualdad, con probabilidades altas de establecer unas relaciones de respeto, colaboración y buenos tratos.

Expresado de esta forma, parecería que la elección es evidente y que nuestras alumnas y alumnos no deberían tener dudas sobre cuál es el camino que les conviene. Sin embargo, **la elección no es tan clara ni tan fácil**. El sistema social de la oca rosa y la oca azul es tan universal, está tan desarrollado y arraigado que impregna toda la sociedad y lo tenemos asumido, de forma inconsciente, todas las personas, todas las mujeres y hombres. Es el mundo en el que hemos nacido y crecido, en el que nos hemos educado y vivimos, el que reproducimos por inercia.

Al contrario, la oca verde de la igualdad no es todavía un sistema social universal, desarrollado y asumido. Es todavía **un proyecto, una propuesta de cambio y mejora** que, de forma consciente, debemos ir ampliando, desarrollando, sistematizando e interiorizando. Es decir, utilizando el lenguaje del programa, debemos crear puntos verdes y convertir los puntos grises en verdes para cambiar el mundo.

Esto es lo que estamos haciendo en nuestras escuelas cuando intentamos educar a nuestro alumnado para la igualdad. No obstante, sabemos que no somos el único agente educador que intenta ofrecerles modelos de desarrollo y relaciones, modelos de itinerarios vitales. **Los omnipresentes medios de comunicación tienen en nuestra sociedad una importante labor educativa**. Son, sin duda, para bien y para mal, una escuela social de gran impacto e influencia. Nuestras alumnas y alumnos se educan en ellos para la vida al igual que lo hacen en la escuela o en la familia.

Los medios de comunicación, en general, reflejan y transmiten los temas, valores y modelos sociales imperantes y, en ocasiones, proponen o recogen alternativas a los mismos. Nuestras alumnas y alumnos ven, imitan y aprenden en ellos sus intereses, gustos, preferencias, objetivos, estilos, relaciones, narraciones, valores... **Chicas y chicos ven, imitan y aprenden en los medios de comunicación los modelos básicos de presencia, relación y éxito social**. Es decir, los medios reflejan y enseñan el camino para ser alguien en esta vida, para ser alguien valorado, con éxito, reconocimiento... alguien que vale, que tiene un valor reconocido socialmente.

Estos modelos de éxito social suelen ser diferentes para las chicas y para los chicos. Se dice que los medios de comunicación son **el reflejo de nuestra sociedad, el reflejo de la actividad humana, de lo que consideramos importante y de lo que nos preocupa**. Sin embargo, desde el punto de vista de la igualdad entre mujeres y hombres, podemos decir que los medios de comunicación, en general, cuentan, reflejan y destacan sobre todo las actividades, preocupaciones, gustos, intereses, valoraciones, etc. de los hombres.

Si nos fijamos en la prensa, revistas, televisión, Internet, etc. a los que accedemos cada día y **contamos mujeres y hombres**, veremos que no aparecen el mismo número de mujeres que de hombres, que no aparecen en las mismas secciones (prensa salmón y prensa rosa, política y sociedad, cultura y espectáculo...), que no protagonizan el mismo tipo de noticias y titulares (logros laborales y situaciones sentimentales, récords de todo tipo y belleza...), etc. En general, **los medios recogen sobre todo la actividad, el mundo y las cosas de los hombres y no la actividad, el mundo y las cosas de las mujeres**. Se centran en la mitad de la población (la mitad "importante") y se olvidan de la otra mitad, de su trabajo, actividad y aportaciones diarias.

Podemos decir, en el lenguaje del programa, que los medios de comunicación **cuentan y reflejan mucho la oca azul (es la importante, la protagonista)**, un poco la oca rosa (sólo para que quede constancia, no es importante, es la secundaria) y prácticamente nada de la oca verde (para la mayoría, no existe).

De esta forma, **en general, los medios invisibilizan a la mitad de la población, las mujeres**. En lógica consecuencia, nuestras alumnas, las chicas y las mujeres, no se ven reflejadas en determinadas actividades y no se encuentran nunca en algunos ámbitos de la vida.

En los medios **nuestros alumnos aprenden** en qué secciones, noticias y titulares están los hombres y aprenden que esas secciones, noticias y titulares "importantes" (política, economía, cultura, deporte...) les corresponderán en el futuro también a ellos, "por derecho", por haber nacido hombres. Nuestros alumnos aprenden que, por ser chicos, son importantes para los medios, son importantes para la sociedad. Más aún, aprenden qué lugar "se les debe" por ser chicos.

En los medios, en esos mismos medios que unos y otras manejan, **nuestras alumnas aprenden otra lección muy diferente**. Aprenden que están en algunas secciones "menos importantes" (cotilleo, curiosidades, última página, desnudos...) y en algunas importantes pero como víctimas de alguna agresión o como acompañantes sentimentales de hombres. Y aprenden que hay muchas secciones, noticias y titulares "importantes" en los que no están las mujeres y que, por tanto, no les corresponderán en el futuro. Nuestras alumnas aprenden que, por ser chicas, no son tan importantes para los medios, no son tan importantes para la sociedad. Más aún, aprenden qué lugar "no les toca" por ser chicas.

Estos aprendizajes tan diferentes reflejan **modelos de actividad y éxito social reconocido muy diferentes**. Para los chicos, éxito económico gracias al desempeño laboral (sea cual sea). Para las chicas, éxito sentimental

Guía profesorado-5.qxd 12/06/2009 9:59 Página 3



## 4 "KOMUNIKABIDEEN PARTXISA" JOLASA

Talde txikietan jolasteko jolasa. Talde bakoitzak taula bat, egia ala gezurra diren esaldien baraja bat eta pertsonaien barajako fitxa batzuekin jolasten du.

**Egia ala gezurra diren esaldiak**: 48 kartaz osatutako lau baraja ezberdin dira. Karta edo katetoak lau koloretakoak dira, kolore bakoitzak komunikabideen arlo bat irudikatzen duelarik. Karta bakoitzean emakumeak ikustezinak bilakatzen dituzten mito, aurreiritzi eta ideia okerrekin lotutako esaldi bat dago. Gure ikasleek egia ala gezurra den esan beharko dute.

Baraja bakoitzean, kolore bakoitzeko zenbakitutako hamabi karta daude. Zenbakikuntza honek beste barajetan jarraitzen du. Hau da, lehenengo barajaren karta urdinak 1tik 12ra zenbakituta daude, bigarren barajakoak berriz 13tik 24ra, eta horrela besteetan ere. Zenbakikuntza honi esker, barajak bi eratara erabil daitezke: jolasarekin ematen diren moduan (atzekaldean 1, 2, 3 eta 4 zenbakia duten barajak), komunikabideen arlo guztiekin jolasteko, ala, beste aukera bat, arloka berrantolatu daitezke kartak (baraja urdina, horia, berdea eta gorria, karten koloreak nahastu gabe), komunikabideen arlo bakar bat gehiago sakondu nahi bada.

**Jolasaren dinamika** partxisaren ohizkoa da, programari egokitzeko moldaketa txiki batzuekin. Jolas arauak taulan bertan idatzita daude. Kolore bakoitzeko helmugara (taularen erdiko laukia) iristeko azken sei laukitxoetan galdera bana dago idatzita. Hor gelditzen denean, helmugan asmatu beharko den pertsonaiaren fitxatik galdera horri dagokion erantzuna irakurri behar da.




ISBN 10:84-89630-10-0
ISBN 13:978-84-89630-10-9

## 4 JUEGO "EL PARCHÍS DE LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN"

Para jugar en grupos de número reducido. Cada grupo juega con un tablero, una baraja de frases verdaderas o falsas y un grupo de fichas de la baraja de personajes.

**Barajas de frases verdaderas o falsas:** son cuatro barajas diferentes de 48 cartas. Los naipes son de cuatro colores, representando cada uno de ellos un ámbito de los medios de comunicación. En cada naipe hay una frase en torno a los mitos, prejuicios y falsas ideas que conducen a la invisibilización de las mujeres en los medios. Nuestro alumnado debe decir si son verdaderas o falsas.

En cada baraja hay doce naipes numerados por cada uno de los cuatro colores o ámbitos del tablero. La numeración de cada área continúa en las otras barajas. Es decir, las frases azules de la primera baraja están numeradas del 1 al 12, las de la segunda baraja del 13 al 24 y así sucesivamente. Esto permite que las barajas puedan utilizarse de dos maneras: tal y como se entregan con el juego (barajas de reverso 1, 2, 3 y 4), que permite jugar con contenidos de todas las secciones periodísticas, o bien puedan reordenarse por ámbitos (barajas de cartas azules, amarillas, verdes y rojas sin mezclar), que permite jugar con contenidos de una única sección para profundizar más en ella.

**La dinámica de juego** es la conocida del parchís con algunas pequeñas adaptaciones al programa. Las reglas de juego están impresas en el mismo tablero. Las seis últimas casillas de acceso a la meta de cada color (centro del tablero) llevan impresa una pregunta cada una. Al caer en una de ellas, se lee la respuesta correspondiente del personaje que deberá acertarse al llegar a la meta.




tratu txarrak / maltrato
NAHIKO! 3-4
berdintasuna / igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna / Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO

IRAKASLEAREN GIDA
GUÍA DEL PROFESORADO
10

# KOMUNIKABIDEAK

# MEDIOS DE COMUNICACIÓN

UNIDAD DIDÁCTICA 5 UNITATE DIDAKTIKOA

Aipatutako eduki eta kontzeptu hauek lantzeko, bostgarren unitate honek ondoko **helburu zehatzak** ditu:

- Jolasaren bidez, neska-mutilek **emakumeak arlo guztietan gizonak adina lanean ari direla egiaztatu** dezatela.

- **Emakume horien izenak ezagutu** ditzatela, beraientzat gizonen izenak bezain begi-bistakoak izan daitezela.

- **Aztertu dezatela zergatik ezagutzen dituzten** antzeko jardun eta merito egin dituzten **gizonen izenak eta ez ordea emakumeen izenak.**

- Komunikabideetan protagonista diren edo izan zitezkeen eta izan beharko liratekeen **beste emakume batzuk bila ditzatela**.

- Balioztatu dezatela ea emakumeek egindako ekarpenek gizonek egindakoen komunikabideetan **agertzeko adina merito duten.**

- **Egia ala gezurra diren esaldiak aztertu ditzatela**, kasu bakoitzean ontzat emateak ala ez komunikabideetan duen edo izango lukeen eragina ondorioztatuz.

- Egia ala gezurra diren esaldi horien oinarrian dauden eta emakumeak ikustezinak bilakatzen dituzten **mito, aurreiritzi eta ideia okerrak aztertu ditzatela.**

- **Komunikabideek gure bizitzan duten eraginaz kontura daitezela,** bai gure burua ikusteko eran eta bai etorkizunerako egiten ditugun proiektuetan.

- Komunikabideek **bizitzeko ereduak (nortasuna, lana, harremanak, arrakasta...)** eskeintzen dizkigutela ohar daitezela eta guk eredu horiek jarraitu ala ez erabaki ahal eta behar dugula.

- **Berdintasunaren oka berdea posible izateko, komunikabideen partxisa ere berdintasunaren partxis berdea izan behar dela** uler dezatela. Hau da, komunikabideek emakumeen nahiz gizonen jarduerak, interesak, kezkak eta balioak berdintasunez islatzea.




Para trabajar estos conceptos y contenidos, la quinta unidad didáctica se centra en los siguientes **objetivos concretos**:

- Que, mediante el juego, chicas y chicos comprueben **que las mujeres están actuando, trabajando y aportando en todos los ámbitos** tanto como los hombres.

- **Que conozcan a esas mujeres por su nombre**, que se hagan para ellas y ellos tan visibles y conocidas como los hombres.

- **Que analicen por qué conocen a los hombres y por qué no conocen a las mujeres** que han hecho acciones meritorias o noticiables similares.

- **Que busquen e identifiquen a otras mujeres** que son o podrían y deberían ser protagonistas en los medios.

- Que valoren si las aportaciones de las mujeres **merecen ser reflejadas** en los medios de comunicación tanto como las que realizan los hombres.

- **Que analicen las frases de verdadero y falso** y vean en cada caso las consecuencias que tiene o tendría considerarlas verdaderas o falsas.

- **Que analicen los mitos, prejuicios y falsas ideas** que subyacen a las frases de verdadero y falso y que conducen a la invisibilización de las mujeres en los medios de comunicación.

- **Que se den cuenta de la influencia que tienen los medios de comunicación en nuestras vidas**, en cómo nos vemos y qué proyectos de futuro hacemos.

- Que se den cuenta de que los medios de comunicación nos ofrecen **modelos de vida (personalidad, trabajo, relaciones, éxito...)** y que podemos y debemos decidir si seguirlos o no.

- Que entiendan que **la oca verde de la igualdad sólo es posible si el parchís de los medios de comunicación es también el parchís verde de la igualdad**. Es decir, si los medios de comunicación reflejan de forma igualitaria la actividad, intereses, preocupaciones y valores de las mujeres y de los hombres.

Guía profesorado-5.qxd 12/06/2009 9:59 Página 4



## 2 MATERIALAK ETA EKINTZAK

Unitate didaktiko honek **jolas edo material osagarri bakarra du, "Komunikabideen Partxis Jolasa"**. Osagai hauek ditu: lau taula (berdinak), pertsonaien baraja bakarra (40 emakume eta 40 gizonen fitxaz osatutakoa) eta egia ala gezurra diren esaldien lau baraja (48 kartaz osatutako baraja ezberdinak).

Nahiz eta material edo jolas bakarra izan, erabilera banandua ere badu materialak. Beraz, praktikotasunaren aldetik, bi jolas direla esan dezakegu.

**1.- "Pertsonaiak" jolasa:** A6 neurriko (15 x 10 zm) 80 fitxaz osatutako baraja bakarra. Fitxa bakoitzak komunikabideetan albistea izan den, izaten den edo izan daitekeen benetako pertsona bat edota fikziozko pertsonaia bat jasotzen du (liburutakoa, telebistakoa...). Erdia emakumeak dira eta beste erdia gizonak. Fitxak lau koloretakoak dira, kolore bakoitzak komunikanideetako atal bat irudikatzen duelarik. Zenbakitutako hogei fitxa daude arlo edo kolore bakoitzeko.

Fitxa bakoitzaren goikaldean pertsona edo pertsonaiaren izena dago. Bere azpian, behetik goruntz eskaileran, pertsona edo pertsonai hori ezagutzeko sei pista daude. Sei pista horiek partxisean, helmugarako azken laukitxoetan idatzita dauden sei galderen erantzunak dira. Pista edo galdera hauek, behetik gora, ondokoak dira:

1. Zenbat pertsona edo pertsonaia dira.
2. Bizi da/dira ala ez.
3. Zein sexua du/dute.
4. Zein herrialdekoa da/dira, zein herrikoa.
5. Zein da bere lanbidea.
6. Zergatik ateratzen da komunikabideen albisteetan.

**2.- "Komunikabideen Partxisa" jolasa:** lau taula berdinez eta 48 kartaz osatutako lau karta-baraja ezberdinez osatzen da. Taulek ohizko partxis jolasa irudikatzen dute, Nahiko programari egokitzeko moldaketa txiki batzuekin. Taularen ohizko lau koloreek komunikabideetan ohizkoak diren lau esparru zabal ordezkatzen dute (ekonomia-politika, kirolak, zinema-musika-tb, zientzia-kultura-gizartea). Jolas arauak taulan bertan daude idatzita, eskuin aldean.

Lau barajak ezberdinak dira baina eduki bera dute. Bakoitzak 48 karta edo kateto ditu. Kartak lau koloretakoak dira, taulakoak bezalakoak komunikabideen ohizko lau esparru zabalekin lotuta. Zenbakitutako hamabi karta daude kolore edo arlo bakoitzeko. Karta bakoitzean esaldi bat dago euskaraz eta esaldi bera gaztelaniaz, eta, hauen azpian, esaldia egia ala gezurra den ikus daiteke.




## 3 "PERTSONAIAK" JOLASA

Nahiz eta baraja hau osatzen duten 80 fitxa bigarren jolasa (partxisa) jolasteko beharrezkoak diren, beraiekin bakarrik ere jolas daiteke, bai partxisean aritu aurretik bai partxisarekin jolastu ondoren. Gutxienez partxisaren aurretik erabiltzea gomendatzen dugu. Horrela eginez gero, ikasleek pertsonaiak ezagutu egingo dituzte eta, gero, partxisean aritzerakoan dena errezago eta arinago joango da, bigarren jolas honetan egia ala gezurra diren esaldietan gehiago zentratu ahal izango delarik. Dena den, pertsonaien fitxak partxisean jolastu ondoren erabiltzeak ere gaia gehiago sakontzeko aukera eskeintzen du.

Talde handian, gela osoarekin, jolastu daiteke (baraja osoa erabiliz) edo talde txikietan (baraja koloreen arabera, sexuaren arabera, zenbakien arabera... taldeen artean banatuz).

**Jolasteko dinamika ugari** egon daiteke:

- "Nor da nor?": bai eta ez erantzun bakarrak erabili daitekelarik, galderen bitartez pertsonaiak asmatu.

- "Kazetari" rol-jokoa: ikasleekin bikoteak egin eta pertsonaiak banatu, informazio gehiago bilatu eta elkarrizketa egin/antzeztu, ikasle bat kazetariarena eginez eta bestea pertsonaiarena.

- Pertsonaien zerrenda aztertu: nor ezagutzen dugu eta nor ez? Zergatik? Gizon ala emakume gehiago ezagutzen ditugu? Zein arloetan? Zergatik? Antzeko jarduera edo meritoa dituzten emakume eta gizon bikoteak egin ditzakegu? Biak ezagunak dira? Noiz bai? Noiz ez? Zergatik? Eta abar.

- Pertsonaien zerrenda osatu: Emakume gehiago ezagutzen ditugu esparru hauetan? Zerrenda egin. Zergatik ezagutzen ditugu: bere jarduengatik ala gizonekin duten harremanagatik? Berdin gertatzen da gizonekin? Zergatik?

- Erreferentziazko ereduak, imitatzeko ereduak: ikasleekin taldeak egin eta talde bakoitzak aukeratu dezala arlo bakoitzeko emakume bat eta gizon bat, talde ezberdinek azaldu dezatela zeintzuk eta zergatik aukeratu dituzten.

## 2 MATERIALES Y ACTIVIDADES

Esta unidad didáctica tiene **un único juego o material complementario, el juego "Parchís de los medios de comunicación"**. Está compuesto de cuatro tableros (idénticos), una única baraja de personajes (40 mujeres y 40 hombres) y cuatro barajas de frases verdaderas o falsas (barajas diferentes de 48 cartas cada una).

A pesar de tratarse de un único material o juego, puede utilizarse de forma separada, por lo que, a efectos prácticos, podemos decir que consta de dos juegos.

**1.- Juego "Personajes"**: una única baraja de 80 fichas tamaño A6 (15 x 10 cm.). Cada ficha recoge una persona real o un personaje de ficción (literario, televisivo...) que ha sido, suele ser o puede ser noticia en los medios de comunicación. La mitad son mujeres y la mitad hombres. Las fichas son de cuatro colores, representando cada uno de ellos un ámbito de actividad o sección de los medios de comunicación. Hay veinte fichas numeradas por cada color o ámbito.

En cada ficha, en la parte superior figura el nombre de la persona o personaje. En la parte inferior, en escalera ascendente hacia el nombre, hay seis pistas con datos sobre la persona o personaje en cuestión. Estas seis pistas responden a las preguntas que figuran en el tablero del parchís en las casillas de acceso a la meta de cada color.

Las preguntas o pistas, en orden ascendente, son las siguientes:

1. Cuántas personas o personajes (una, dos, tres...).
2. Vive/viven o no.
3. Sexo de la persona o personaje (mujer, hombre).
4. De qué país es/son, de qué localidad.
5. Cuál es su empleo, su actividad.
6. Cuál es el motivo de que sea noticia en los medios de comunicación.

**2.- Juego "Parchís de los Medios de Comunicación":** consta de cuatro tableros iguales y cuatro barajas diferentes de 48 cartas cada una. Los tableros representan el juego del parchís habitual con algunas pequeñas adaptaciones al programa. Cada color del tablero representa un ámbito de actividad o sección de los medios de comunicación (economía-política, deportes, cine-música-tv, ciencia-cultura-sociedad). Las reglas de juego están impresas a la derecha del tablero.

Las barajas son distintas entre sí pero responden al mismo contenido. Cada una de ellas consta de 48 naipes. Los naipes son de cuatro colores, representando cada uno de ellos un ámbito de actividad o sección de los medios de comunicación. Hay doce naipes numerados por cada color o ámbito. En cada naipe hay una frase en euskara y castellano y, debajo de ellas, la indicación de si dicha frase es verdadera o falsa.

## 3 JUEGO "PERSONAJES"

Aunque las 80 fichas que componen esta baraja son necesarias para jugar al segundo juego (parchís), puede jugarse independientemente con este material tanto con anterioridad como con posterioridad al parchís.

Se recomienda su utilización al menos antes de jugar con el parchís. El alumnado podrá así conocer previamente los personajes, de manera que el posterior juego del parchís sea más ágil y se centre más en las tarjetas de verdadero o falso. No obstante, utilizar también las tarjetas de personajes después del parchís puede permitir una mayor profundización de las mismas.

Puede jugarse en gran grupo (con toda la baraja) o en grupos de número reducido (dividiendo la baraja en varias partes por colores, por sexos, aleatoriamente...).

**Las dinámicas de juego o actividades** pueden ser muy variadas:

- "¿Quién es quién?": descubrir el personaje en cuestión mediante preguntas a las que sólo puede contestarse únicamente con un sí o un no.

- Juego de rol "Periodista": hacer parejas con el alumnado y repartir los personajes, que busquen más información y realicen/representen una entrevista haciendo de periodista y personaje respectivamente.

- Análisis del listado de personajes: ¿A quién conocemos y a quién no?. ¿Por qué?. ¿Conocemos más hombres que mujeres?. ¿En qué ámbitos?. ¿Por qué?. ¿Podemos hacer parejas de mujeres y hombres de méritos similares?. ¿Son igualmente conocidas ambas personas?. ¿En qué casos sí? ¿En qué casos no?. ¿Por qué?. Etc.

- Completar la lista de personajes: ¿Qué otras mujeres conocemos en esos ámbitos? Hacer un listado. ¿Por qué las conocemos, por su actividad o por sus relaciones con hombres?

- Modelos de referencia, modelos a imitar: que elijan por grupos un hombre y una mujer de cada ámbito y digan por qué.




